



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

1169/2011 (EB) Araudia (<http://www.boe.es/doue/2011/304/L00018-00063.pdf>)ren berritasun nagusietako bat da **alergiak edo intolerantziak sor ditzakeen edozein substantzia adierazi behar dela, bai ontziratutako elikagai bai ontziratutako gabeko elikagai guztietan.**

Aipatu beharreko alergenok ([https://etiquetado.elika.eus/wp-content/uploads/sites/3/2017/12/5.1.listado-de-alérgenos-a-declarar\\_eusk.pdf](https://etiquetado.elika.eus/wp-content/uploads/sites/3/2017/12/5.1.listado-de-alérgenos-a-declarar_eusk.pdf))

Bai kontsumitzaile bai elikagai enpresen arduradunek hobeto ulertzeko alergenok nola adierazi, Batzordeak dokumentu bat argitaratu du. Adibideekin azaltzen da nola adierazi behar diren alergiak eragin ditzaketen substantziak (beti ez baita egoten guztiz garbi), hainbat kasutan.

Comunicación de la Comisión de 13.7.2017 relativa a la información alimentaria facilitada acerca de las sustancias o productos que causan alergias o intolerancias, según figuran en el anexo II del Reglamento (UE) 1169/2011, sobre la información alimentaria facilitada al consumidor ([https://ec.europa.eu/food/sites/food/files/safety/docs/labelling\\_legislation\\_guidance\\_allegens-2017-4864\\_es.pdf](https://ec.europa.eu/food/sites/food/files/safety/docs/labelling_legislation_guidance_allegens-2017-4864_es.pdf))

Elikagaietan glutenaren presentziari edo gabeziari buruzko informazioari buruz, araudi bat argitaratu zen “gluten barik” edo “gluten presentzia murriztua” erabiltzeko baldintzak

Reglamento de ejecución (UE) 828/2014 de la Comisión, relativo a los requisitos para la transmisión de información a los consumidores sobre la ausencia o la presencia reducida de gluten en los alimentos (<http://www.boe.es/doue/2014/228/L00005-00008.pdf>)

**Alergenoen buruzko informazioa borondatez ematen bada**, ez du nahasterik eragingo eta ez da anbigua edo nahasgarria izango kontsumitzaileentzat, eta dagozkion datu zientifikoetan oinarrituko da.

Gai horrekin lotuta, Europako Batzordeak exekuzio ekintzak erabaki beharko ditu elikagaiei buruzko borondatezko informazioari betebeharrak aplikatzeari dagokionez:

- Elikagai batean nahi gabe alergiak edo intolerantziak eragiten dituzten produktuak egoteko aukerari buruzko informazioa.

Alergenoen badaezpadako etiketatzea (EPA) - FIAB (2016)  
([http://www.fiab.es/archivos/documentoMenu/documentomenu\\_20161020154930.pdf](http://www.fiab.es/archivos/documentoMenu/documentomenu_20161020154930.pdf))

- Elikagai jakin bat begetarianoentzat edo beganoentzat egokia den adierazten duen informazioa.
- Herritar-talde jakin bat edo batzuentzat erreferentziako ingestak adierazteko aukera.

Alergenok nola adierazi elikagai mota desberdinetan:

## ONTZIRATUTAKO ELIKAGAIK

Osagaien zerrendan adieraziko dira, gainerako osagaietatik bereizteko tipografiarekin. Elikagaiak osagaien zerrendarik ez badu, "hau dauka" aipatuko da eta ondoren, sustantzia alergenikoaren izena.

Elikagaiaren izenak alergiak edo intolerantziak sortzen dituen sustantzia edo produktua argi eta garbi aipatzen duenean, ez da beharrezkoa sustantzia edo produktu hori etiketatzea.

Alergias: consideraciones al etiquetar alimentos envasados – Consejería de Sanidad de Madrid (2014) (<http://www.madrid.org/bvirtual/BVCM017778.pdf>)

## ONTZIRATU GABEKO ELIKAGAIK

Informazioa emateko hainbat modu daude, betiere elikagaiekiko alergia edo intolerantzia duten kontsumitzailearen babes-maila altua bermatzen badu. Hona hemen informazioa emateko moduak:

1. **Elikagaiari itsatsitako etiketetan**, aldeaz aurretik ontziratuta bada.
2. Elikagaiak **saltzeko aurkezten diren lekuetan**, karteletan, batetik, elikagaia aurretik ontziratuta bada saltzaileak; bestalde, ontziratuta gabe saltzen badituzte edo erosleak hala eskatuta saltokian ontziratzen badituzte.
3. **Beste modu egoki batzuetan** (esaterako: menu bat edo karta bat, establezimenduan merkaturatzen diren produktuen errezeta-liburu bat, ahozko informazioa), betiere kontsumitzaileak eskuragarri baditu erosketa egin baino lehen
4. **Urrutiko salmentaren kasuan** (adibidez, telefonoaren bidezko erosketan edo eramateko janaria saltzen duten saltokietan), alergenoei buruzko informazioa kostu gehigarriarik gabe eman behar da: **Erosketa egin baino lehen**; adibidez, telefonoz edo webgunean, eta idatziz, elikagaia ematean.

Información sobre alérgenos en alimentos sin envasar – Consejería de Sanidad de Madrid (2014) (<http://www.madrid.org/bvirtual/BVCM017779.pdf>)

Guía sobre la información de los alimentos en comercio minorista y restauración – Departamento de Salud del Gobierno Vasco (2015) ([https://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/sanidad\\_alimentaria/es\\_1247/adjuntos/Guía sobre la información de los alimentos en comercio minorista y restauración.pdf](https://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/sanidad_alimentaria/es_1247/adjuntos/Guía sobre la información de los alimentos en comercio minorista y restauración.pdf))

## JATETXEAK/TABERNAK

**Taberna eta jatetxeek ere, alergenoei buruzko informazioa eman behar dute.**

Informazioa hurrengo era desberdinetan eman daiteke:

- **menu - karta batean**, platerian dauden sustantzia alergenikoak aipatuz
- **pintxoetan** jarritako karteletan
- alergenoei buruzko **informazioa dagoen lekua adierazten** duten kartelen bidez
- **ahoz**, berariazko langileen bidez (kasu honetan, idatzizko dokumentazioa ere egongo da laguntza moduan)

---

Oso garrantzitsua da jatetxe edo tabernetako langileek prestakuntza eta gaurkotutako informazioa izatea.  
**ELIKA** . Granja Modelo, z/g . 01192 . Arkaute (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxa: 945 122 171 .  
[berri@elika.eus](mailto:berri@elika.eus) (mailto:berri@elika.eus)